









IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA EGITEKO GIDA¹

					
DATUAK	ANALISIA	HELBURUAK	EKINTZAK	DENBORALIZAZIOA	EBALUAZIOA

HITZAURREA

Dokumentu honen xedea zentroi euren Ikastetxeko Proiektu Digitala diseinatzen laguntzea da, betiere bakoitzaren beharrak, egoera eta ezaugarriak kontuan izanik.

Ikastetxeko Proiektu Digitala baliabide digitalen erabilera —irakas eta ikas prozesuetan zein gainontzeko zentroko kudeaketa prozesuetan— erraztu eta sustatuko duen tresna bat da; beraz, Hezkuntza Proiektuan, Zuzendaritza Proiektuan eta Urteko Planean txertatu behar da ezinbestean. Gainera, baliabide digital pedagogikoaren erabilera dela eta, Proiektu Digitalak zentro osoaren ikuspegia izan behar du, eskaintzen dituen aukerei probetxurik handiena ateratzeko, hezkuntza komunitate osoaren proiektu partekatua izan dadin, koherentzia emango duena eta teknologien erabilera gidatuko duena.

Ikastetxeek beraien potentzial digitala plan baten bidez garatzeko funtsezko erreferentzia Digitalaki Eskudunak diren Hezkuntza Erakundeetarako Europako Esparrua da (*DigCompOrg*), Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuak (*JRC, Joint Research Centre*) garatua. Esparru hori *Furthering Innovative Education* azterlanaren parte da, zeina Europako Batzordeko Kultura Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiak eta Ikerketa Zentro Bateratuak - Prospektiba Teknologikoko Azterketen Institutuak (*IPTS*) abiarazi baitute. Europako esparru hori lantzean, kontuan hartu eta mapatu dira lehendik dauden eta aitortuta dauden beste esparru batzuk, hala nola *OPEKA* (Finlandia), *Microsoft SRT, School Mentor* (Norvegia), *Vensters* (Holanda), *Speak Up NRP* (AEB) edo *HEInnovate*, besteak beste. Era berean, eta esparru horrekin lotuta, Europako Batzordeak *SELFIE* autoebaluazio-tresna garatu du, ikastetxe guztientzat doan eskuragarri dagoena, eta ikastetxearen autoebaluazio-

txostena (*SELFIE* txostena) online lortzeko aukera ematen diena.

GIIDA HONEN ERABILERA


Gida hau Ikastetxearen Proiektu Digitala idazteko oinarria da. Gidan, proiektuaren atal bakoitzean idatzi behar dena agertzen da. Atal bakoitzean, euskarri batzuk jarri dira proiektuaren atal bakoitza idazten laguntzeko. Atal bakoitzaren bukaeran, lanen kontrol zerrenda bat dago, proiektua idazten ari direnei proiektua idazteko urrats guztiak jarraitzen ari dituztela bermatzeko.

¹ intef. (s.f.) Plan Digital de centro.

https://intef.es/wp-content/uploads/2020/07/2020_0707_Plan-Digital-de-Centro_-INTEF.pdf

EDUKIAK


1. DATUAK
2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA
3. HELBURUAK
4. EKINTZAK
5. EKINTZEN ETA EPEEN DENBORALIZAZIOA
6. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA



DATUAK

ZER

Proiektu Digitalaren lehen atal honetan, ikastetxearen testuingurua, azpiegitura, justifikazioa, prozesua, lantaldea eta Proiektu Digital honek ikastetxearen Hezkuntza Proiektuari nola eragiten dion azaldu behar duzue.



NOLA

Aipatutako arloetan ikastetxearen gaineko datuak jasota eta oinarrizko dokumentuetara jota.

ZERGATIK

Oso garrantzitsua delako aurkeztuko duzuen Proiektu Digitala ikastetxearen errealitatearekin eta beharrekin guztiz lotuta egotea.

DigCompEdu

The European Framework
for the Digital Competence
of Educators



DigCompEdu¹ Europar Batasunak ikastetxeentzako profesionalentzako adostu duen markoa da.

Europako estatu kide asko gero eta kontzientziatuago daude hezitzaileek gaitasun digital espezifikoaren multzo bat behar dutela beren lanbiderako, teknologia digitalek hezkuntza hobetzeko eta berritzeko duten potentziala aprobetxatu ahal izateko, eta Hezitzaileen Gaitasun Digitalerako Europako Esparruak (DigCompEdu) erantzuna ematen dio.

¹ DigCompEdu <https://ec.europa.eu/jrc/en/digcompedu>

DigCompEdu euskaraz:

<https://hodeia.tolosaldealh.eus/s/QFWodxjo4pS7a8G#pdfviewer>

1. DATUAK

A. Testuingurua: zentroaren oinarrizko datuak. Atal honetan ikastetxearen deskripzio laburra egin daiteke, hala nola kokapena, hezkuntza eskaintza, familien maila sozio-ekonomikoa...

B. Azpiegitura: gailuak, konektibitatea, plataforma eta zerbitzu digitalak, mantenua.

C. Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak, besteak beste, ikastetxearen konpetentzia digitala hobetzeko garatuko diren jarduerak jasoko ditu. Azken urteetan hezkuntza-prozesuak hobetzera zuzenduta egon diren hainbat baliabide, tresna eta zerbitzu inplementatu eta egonkortu dira zentroetan. Edonola ere, beharrezkoa da une honetan teknologiaren garapenari perspektiba globalago batetik ekitea, ikastetxea eraldaketa-unitate bezala ulertuz eta bertako zuzendaritza taldeak bultzatzen dituen hobekuntza planak diseinatuz. Digitalki Eskudunak diren Hezkuntza-erakundeetarako Markoak (*DigCompEduk*) bide ematen digu gure zentroetako errealitatea aztertzeke eta etorkizunera begirako ekintza planak diseinatzeke, perspektiba global batetik beti ere.

Ikastetxeak etengabe aldatzen ari den mundu bateko, geroz eta digitalizatuago dagoen jendarte bateko partaideak dira. Hortaz, zentroek erantzun egin behar diete gizartetik eta lan-merkatutik heltzen zaizkien eskaerei, etorkizuneko hiritarrak ingurune oso digitalizatu batean ondo moldatu daitezen prestatu ahal izateko.

Gaur egun ezinbestekoa da teknologia erabiltzea ikastetxe bateko praktketan, bai antolamendu-alderdiei dagozkienak bai irakas-ikas prozesuetan kokatzen direnak.

Plan honen bitartez zerak erdietsi nahi ditugu:

- Zentroaren egoera ebaluatzea, IKTen erabilerari dagokionez.
- Plan Digital batek hezkuntza-erakunde bateko estrategia digitala planifikatzeko duen potentziala aitortzea.
- Zentroa etengabe ikasten ari den erakunde bat bilakatzea; horretarako, digitalki konpetentea izan behar da ezinbestean.
- Zentroetako kultura digitala garatzeko, hezkuntza-komunitateko estamentu guztien inplikazioak duen

garrantzia azpimarratzea.

D. Elaborazio prozesua eta lantaldea

Proiektuaren diseinuak ideia nagusiak jaso, lehentasunak zehaztu, eta planifikazio mailak (programak, proiektuak, ekintzak) ezarri behar ditu. Horiek markatuko dute zentroaren lan plana hobekuntza prozesuan zehar. Halaber, gakoa da zuzendaritza taldearen partehartzea Proiektu Digitalaren diseinu eta inplementazio prozesuan: batetik, aportatu dezakeen ikuspegi globalagatik, eta bestetik baliabideak esleitzeko eta ardurak banatzeko duen eskumenengatik.







Ikastetxeko Proiektu Digitalak:

- Gaur egun zentroa non dagoen ulertzen laguntzen du (ikastetxearen egoeraren analisia: autoebaluazioa eta hausnarketa).
- Ikastetxeak nora iritsi nahi duen zehazten du (helburuak).
- Ikastetxea egoera batetik bestera eramango duen bidea marrazten du (Helburuak erdiesteko ekintzak zehaztu).

E. Proiektu Digitalak Hezkuntza-Proiektuari (eta Urteko Planari) egiten dion ekarpena

Ikastetxeko Proiektu Digitala ikastetxeko testuinguru zabal batean kokatu behar da; testuinguru hori beste oinarrizko zenbait dokumentutan zehazten da, besteak beste Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan.

Dokumentu horiek, halabeharrez, bat etorri behar dira eta guztiz osagarriak izan.

					
DATUAK	ANALISIA	HELBURUAK	EKINTZAK	DENBORALIZAZIOA	EBALUAZIOA

1. ATALEKO LANEN KONTROL ZERRENDA		
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		



ANALISIA

ZER

Bigarren atal honetan, ikastetxearen analisia egingo dugu Ikastetxeetako Gaitasun Digitalaren (DigCompOrg) arabera, markoan agertzen diren eremuak aztertuko dira.



NOLA

Lehenik auto hausnarketa bat egingo dugu Selfie tresnarekin eta ondoren, honek ematen digun txostenaren arabera, AMIA taula beteko dugu. Horrek gure ikastetxearen diagnosi bat emango digu.

ZERGATIK

Garrantzitsua da non gauden jakitea, horrek emango bait digu gure proiektu digitala nola garatu nahi dugunaren ildo eta jarraibideak.

2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Zentroaren egoeraren analisiak aintzat hartuko ditu [Digitalki eskudunak diren hezkuntza erakundeentzako Europako Markoa \(DigCompOrg\)](#) ezarritako hiru dimentsioak: pedagogikoa, teknologikoa eta antolamenduzkoa eta **7 esparruko** elementutan oinarritutako ikastetxearen azterketa proposatzen du, alegia:

- 1. Azpiegitura.**
- 2. Lidergoa eta Gobernantza.**
- 3. Irakaskuntza eta Ikaskuntza.**
- 4. Garapen Profesionala.**
- 5. Ebaluazioa.**
- 6. Edukiak eta Curriculumua.**
- 7. Laguntza eta Lankidetzaren Sareak.**

Ikastetxe bakoitzak bere **ezaugarri espezifikoetara egokitutako beste elementu batzuk** gehitu ahal izango ditu. Laguntza gisa, ikastetxeei gomendatzen zaie *SELFIE* autoebaluaziorako tresna erabiltzea, ikastetxe guztientzat eskuragarri dagoena eta egoerari buruzko txostena ematen duena. *SELFIE* txostenetik abiatuta, zentroak AMIA azterketa bat sortuko du, bere egoerari buruz hausnartzen eta Ikastetxearen Plan Digitala egiten lagunduko diona, helburuei eta jarduketeki dagokienez.



Zer da *SELFIE*?

*SELFIE*¹ (ingelesez «hezkuntza-teknologia berritzaileen bidez berrikuntza sustatuz ikaskuntza eraginkor bati buruzko auto-gogoeta» esan nahi duten siglak) doako tresna da, ikastetxeei teknologia digitalak ikaskuntza eraginkor eta berritzailea lortzeko nola erabiltzen dituzten planteatzen laguntzen diena.

Digitalki gaituak diren hezkuntza-erakundeentzako Europako Batzordearen esparruan oinarrituta (*DigCompOrg*), *SELFIE* lagundu egiten du zer alderdi hobetu behar diren eta zer alderdi diren nabarmentzen. *SELFIE* erabiliz, ikastetxeek teknologia digitalen erabilerari buruzko puntuaren argazki bat lor dezakete, irakasleen, ikasleen eta zuzendaritza-taldearen iritzia kontuan hartuta.

Autohausnarketa-prozesu hori lagungarria izan daiteke ikastetxearen barruan balizko hobekuntza-eremuei buruzko elkarrizketa irekitzeko. Halaber, *SELFIE* aukera ematen die ikastetxeei denboran zehar lortzen dituzten aurrerapenen jarraipena egiteko. Tresna hau gaur egun Europar Batasuneko 24 hizkuntza ofizialetan dago eskuragarri, eta denboran zehar hizkuntza gehiago gehitzea aurreikusten da.

SELFIE modu anonimoan biltzen ditu ikasleek, irakasleek eta zuzendaritza-taldeak ikastetxean teknologia erabiltzeko moduari buruz dituzten iritziak. Horretarako, galdera eta enuntziatu laburrak eta balorazio-eskala sinple bat erabiltzen dira. Enuntziatuek, besteak beste, lidergoa, azpiegiturak, irakasleen prestakuntza eta ikasleen gaitasun digitalak hartzen dituzte. Informazio hori oinarri hartuta, tresnak ikastetxearen indarguneei eta ahulguneei buruzko txosten bat sortzen du («*SELFIE*»), irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako teknologia digitalen erabilerari dagokionez. Zenbat eta pertsona gehiagok parte hartu, orduan eta zehatzagoa izango da ikastetxeko *SELFIE*.

Gainera, emaitzak beren ikastetxerako baino ez dira, eta ez dira partekatzen, ikastetxe bakoitzak erabakitzen ez badu behintzat. Emaitza horiek lagungarriak izan daitezke ikastetxea zein puntutan dagoen ulertzeko eta, hortik, teknologien erabilerari buruzko elkarrizketa bat hasteko eta bere ikastetxerako ekintza-plan bat garatzeko. Horrela, *SELFIE* ikastetxearen txostenak gure hezkuntza-erakundeen indarguneei eta ahulguneei buruzko informazioa eman diezaguke, erakunde horiek digitalizatzeari dagokionez, eta digitalizazio horrek ikasleen ikaskuntza hobetzen nola laguntzen duen. Azkenik, *SELFIE* aurrerago erabil daiteke egindako aurrerapenak ebaluatzeko eta ekintza-plana doitzeko.

*SELFIE*az gain, Euskal Autonomia Erkidegoan beste tresna batzuk ere garatu dira, gaitasun digitalari buruzko analisiak eta baliabideak garatzeko. Horien artean, *IKANOS*² metodologia eta *Hezkuntza Saileko IKT Heldutasun Eredua*.

¹ Selfie herreminta https://ec.europa.eu/education/schools-go-digital_es

² IKANOS <https://ikanos.eus/eu/proceso-ikanos/>

³ Hezkuntza Saileko IKT Heldutasun Eredua <http://iktheldutasuna.berritzegunenagusia.eus/zer-da/>

AMIA ANALISIA

MATRIZEA

Faktore positiboak	Barne-faktoreak		Faktore negatiboak
	INDARGUNEA K	AHULEZIAK	
	▪ 1 ▪ 2 ▪ 3 ▪ ...	▪ 1 ▪ 2 ▪ 3 ▪ ...	
	AUKERAK	MEHATXUAK	
	▪ 1 ▪ 2 ▪ 3 ▪ ...		
	Kanpo-faktoreak		

en. SWAT; es. DAFO / FODA; fr. FFPM.







Enpresa mundutik datorren [tresna bat da](#), kudeaketa-estrategiak erabakitzen laguntzen duena. Barne- eta kanpo-faktoreen alderdi positibo eta negatiboak aztertzen ditu.

- 1. Barne-faktoreak:** Indarguneak eta Ahuleziak.
- 2. Kanpo-faktoreak:** Aukerak eta Mehatxuak.

Faktore hauen azterketa egokia eginez gero, kudeaketa estrategia posibleak bidera daitezke:

- 1. Eraso-estrategia:** Indarguneak + Aukerak
- 2. Berbideratze-estrategia:** Aukerak + Ahuleziak
- 3. Defentsa-estrategia:** Indarguneak + Mehatxuak
- 4. Biziraupen-estrategia:** Ahuleziak + Mehatxuak

Bizi duzuen egoeraren arabera, zeuon ikastetxearen proiektuarentzako egokien deritzazuen estrategia marka dezakezue aldian-aldian.

					
DATUAK	ANALISIA	HELBURUAK	EKINTZAK	DENBORALIZAZIOA	EBALUAZIOA

2 . ATALEKO LANEN KONTROL ZERRENDA

1.	SELFIE tresna abian jarri dugu	
2.	Zuzendaritzak galdetegia bete du	
3.	Irakasleek galdetegia bete dute	
4.	Ikasleek galdetegia bete dute	
5.	SELFIE txostena lortu dugu	
6.	AMIA matrizea bete dugu	
7.	Ondoriaok atera ditugua	



HELBURUAK

ZER

Selfie eta AMIA bete ondoren, diagnosia izango dugu. Orain gure ikastetxearen helburuak idatziko ditugu, ikastetxearen gaitasun digitala hobetzeko eta DigCompOrg-era egokituz. Non gauden badakigu, orain nora joango gara?




NOLA

Helburu espezifikoak, lorgarriak, neurgarriak eta gure aukeren barruan daudenak idatzitz, epe motz edo ertainean lortu daitezkenak.

ZERGATIK

Ikastetxeko errealitatetik abiatu behar den proiektua delako eta gure errealitatera egokitutakoa.

DigCompOrg



DigCompOrg¹ europar markoak gure ikastetxeak bete egoki hornitu behar dituen 7 arloak markatzen ditu. Horiez gain, gure erakundeari egokitutako azpiaztergai espezifikoak txertatzeko aukera ematen digu, ikastetxe bakoitzak SELFIE tresnan gure kabuz gehi genitzakeen itemei esker.

1 DigCompOrg <https://ec.europa.eu/jrc/en/digcomporg>

DigCompOrg euskaraz https://easo.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=e92493c5-50fd-4109-95c1-b3ef3878d7a2&groupId=69775

DigCompOrg gazteleraz <http://educalab.es/intef/digcomp/digcomporg>

3. PROIEKTUAREN HELBURUAK

Helburuak ikastetxearen egoeratik abiatuta formulatuko dira, aurrera egiteko borondatearekin. Aldi jakin baterako zehaztuko dira (ahal dela, ikasturterako, urte anitzeko plan baten esparruan) eta ikastetxeko koordinazio pedagogikorako organoekin lankidetzan. Helburuak espezifikoak, errealistak eta ebaluagarriak izan behar dira eta proiektuaren funtsezko helburu bat arrakala digitalari aurre egiteko neurriak inplementatzea izan behar da.

Horrela, abiapuntuko egoera aztertuta eta horizontea zehaztu ondoren, ekintza plana definitzeko unea iritsiko da.

Ikastetxea zein egoeratan dagoen aztertzerakoan ez da ahaztu behar zentroak digitalizazioaren esparruan orain arte egin duen ibilbidea: Eskola 2.00, IKT Heldutasun Eredua, Kontingentzia plana, Sare Hezkuntza eta STEAM proiektua ...

Datu horiek guztiak aztertzeko lana eta ekintza-planaren diseinua IKT batzordeak egin beharko luke, zuzendaritza-taldeko kideen ezinbesteko partaidetzarekin.

Jarraitzen den prozesua eta lortzen diren emaitzak, elkarlanaren fruitua diren heinean, azken emaitza errealistagoa, bideragarriagoa eta hezkuntza komunitate osoak onartzeko modukoa izango da.







Diagnosia egin eta hobetu beharreko arloak identifikatu ondoren, proiektuko ekintzen diseinurako urrats hauek eman beharko dira:

- Lortu nahi diren **helburuak zehaztea**. Helburu horiek honako hauek izatea gomendatzen da:
 - o **Espezifikoak**, hau da, ahalik eta zehatzenak eta erraz ulertzeko modukoak izan behar dute.
 - o **Neurgarriak**. Kuantifikatu daitezkeen mugarriei erantzun behar diete. Helburu bat neurgarria ez bada, ez dugu jakingo noiz erdietsi dugun.
 - o **Lorgarriak**, hau da, anbizio handikoak izan daitezke eta izan behar dute, baina baita errealistak ere.
 - o **Denboran zehaztuak**. Horri esker, erraz identifikatu ahal izango ditugu etapa eta mugarri guztiak.
- Helburuak lortu diren ala ez ebaluatzeko aukera emango duten **adierazleak definitu** behar dira. Adierazleek zenbakizko eskalen araberakoak izan behar dute.


Europako markoan zehazten diren arloak zerrendatuko ditugu:

- **Azpiegitura teknologikoa.**
- **Lidergoa eta Gobernantza.**
- **Irakaskuntza eta ikaskuntza.**
- **Garapen profesionala.**
- **Ebaluazioa.**
- **Edukiak eta curriculumak.**
- **Laguntza eta Lankidetzak Sareak.**

Proiektuaren helburuak arlo bakoitzean zehazten diren ekintzak garatuz erdietsiko dira. Horregatik, abian jarriko diren ekintzen deskribapena oso zehatza izan beharko da, hau da, ondo definitu beharko dira baliabideak, nortzuk izango diren inplikatuta egongo diren pertsonak, nortzuk arduradunak, eta prozesua modu koherentean garatzeko kronograma bat.

					
DATUAK	ANALISIA	HELBURUA K	EKINTZAK	DENBORALIZA ZIOA	EBALUAZIOA

4. ATALEKO LANEN KONTROL ZERRENDA		
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		



EKINTZAK

ZER

Helburuak lortzeko proposatzen diren ekintzak idatziko ditugu atal honetan.

NOLA

Markoaren eremu bakoitzean egiten diren ekintzetan, agenteak, prozedurak, baliabideak eta lorpen-adierazleak idatziko ditugu. Horretarako Ekintzen orientazio taula erabili dezakegu.

ZERGATIK

Helburuak lortzeko, ekintza horiek gauzatu behar direlako, proiektua aurrera eramateko.



4 . EKINTZAK

Zentroak definitu dituen helburuak erdiesteko zenbait ekintza

adostuko dira.







Ekintza horiek zehazterakoan honakoak hartuko dira kontuan , gutxienez:

- Inplikaturata egongo diren **agenteak**.
- Aurreikusten diren **prozedurak**.
- Beharko diren **baliabideak**.
- **Lorpen-adierazleak**.

Ekintzak, Digitaliki Eskudunak diren Hezkuntza-erakundeetarako Markoak zehazten dituen elementuen inguruan kokatuko dira:

- A) Azpiegitura:** baliabide teknologikoak, konektibitatea, plataforma eta zerbitzu digitalak, eta mantenuak, besteak beste. Zentroak gaur egunean dituen baliabideak aztertuko dira. Kontuan hartuko dira, baita ere, ikasketa prozesuan erabiltzeko familiek / ikasleek etxean dituzten baliabide digitalak (gailuak eta konektibitatea).
- B) Lidergoa eta gobernantza:** zentroaren neurriak eta protokoloak (informazioa, komunikazioa, IKTen erabilera pedagogikoa, datuen babesa, segurtasuna, barne kudeaketa...) eta antolamendu alderdiak (espazioak eta ordutegiak, hezkuntza-komunitateko partaideen lanak eta ardurak...).
- C) Ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak:** metodologia eta estrategia didaktikoak; ikasleen konpetentzia digitalaren garapenaren planifikazioa, eta lotutako oinarrizko konpetentziena, besteak beste.
- D) Garapen profesionala:** irakasleen konpetentzia digitalaren garapen osoa, eta oro har zentroko profesional guztien formazioa Proiektu Digitalean zehaztutakoak garatu ahal izateko.
- E) Edukiak:** irisgarritasuna eta kalitate-irizpideak, Hezkuntza-Baliabide Irekiak, ikasketa mailak...
- F) Ebaluazioa:** ebaluatu beharreko alderdiak, lorpen irizpideak eta adierazleak, ebaluatzeko estrategiak, tresnak...
- G) Laguntza-sareak eta lankidetzak:** irakasleen eta ikastetxeen sareak bultzatzea edota indartzea, familien formazioa eta aholkularitza, inguruko erakundeekin elkarlanean jarduteko mekanismoak eta ekintzak, besteak beste.

1 ERANSKINA: BALIZKO EKINTZEN ORIENTAZIOAK

					
DATUAK	ANALISIA	HELBURUAK	EKINTZAK	DENBORALIZAZIOA	EBALUAZIOA

4 . ATALEKO LANEN KONTROL ZERRENDA

1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		



EKINTZEN ETA EPEEN DENBORALIZAZIOA

ZER

Ekintzak gauzatzeko denboralizazioa idatziko dugu, ekintzak, baliabideak, ahalegina, eragileak, denbora-esparrua, eta epea.



NOLA

Taula baten bidez.

ZERGATIK

Egin behar den lana zein de jakiteko eta helburuak lehenesteko.

LEHENTASUNAK PLANIFIKATZEKO MATRIZEA



<p>ETEKIN HANDIKOA</p>	<p>E R A G I N H A N D I A</p>	<p>ETEKIN ERTAINAKOA</p>
<p>ESFORTZU GUTXI ←</p>		<p>→ ESFORTZU HANDIA</p>
<p>ETEKIN TXIKIKOA</p>	<p>E R A G I N T X I K I A ↓</p>	<p>ETEKINIK EZ EDO EZ EGINGARRIA</p>

Lehentasunak planifikatzeko matrizeak, une jakin batean eskuartean dituen ekintzak aukeratu, lehenetsi eta antolatzeko sistema bat izan daiteke.







Proiektu Digitalaren ekintzetan arduradunen tokian jarri eta ariketa hau egitea egokia izan daiteke ikastetxearen jarduera garrantzitsu eta egingarriak aukeratzeko. Baita ekintzen plangintza egiteko.

5 . EKINTZEN ETA EPEEN DENBORALIZAZIOA

Ikastetxeko Proiektu Digitalaren azken atalean n, honako hauek jasoko dira: egin beharreko **ekintzak**, beharrezko **baliabideak** (giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide ekonomikoak), **behar duten ahalegina** (hau da, epe ertain edo luzera heltzeko modukoak diren ala ez), inplikaturako **eragileak**, ekintza bakoitzerako **denbora-esparrua**, ekintza horiek gauzatzeko behar den **epea, helburuak eta adierazleak**, iraungitze-maila ezagutzea ahalbidetuko dutenak.

Denbora-plangintzak zentroaren digitalizazio-helburuak pixkanaka lortzeko beharrezkoak diren mugarriak zehaztuko ditu. Baliagarria izango da jardueren bilakaera gidatzeko, egiaztatzeko eta bistaratzeko.

- Garrantzitsua da **arrazoizko epe batzuk** planifikatzea, hasitako ekintzek erakundean benetan eragina izan dezaten.
- Jarduerak une bakoitzean dakarten **lan implizitua kontuan hartu** behar du, eta elkarren mendeko diren **jardueren arteko elkarrekintza** errespetatu behar du.
- Epeen plangintzak **malgua** izan behar du ikastetxearen beharretara egokitzeko.

					
DATUAK	ANALISIA	HELBURUAK	EKINTZAK	DENBORA LIZAZIOA	EBALUAZIOA

5 . ATALEKO LANEN KONTROL ZERRENDA

1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		



PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

ZER

Azkenik, atal honetan proiektuaren ebaluazioa egingo dugu. Ekintzak ebaluatuko ditugu eta baita helburuak ere. Noiz, nola, eta nork egingo dituen finkatuko dugu.

NOLA

Batetik, noiz, nola eta nork egingo duen proiektuaren ebaluazioa erabakiko dugu.


Bestetik taula batean, helburuak eta adierazleak idatziko ditugu eta ondoren betetze maila. Ondoren, hobekuntza proposamenak idatziko ditugu.

ZERGATIK

Helburuak bete diren jakiteko eta horrez gain, zer betetze maila lortu den. Modu horretan, hurrengo ekintza plana egingo dugu.



PDCA



Irudia: NUPeko KBBSaren deskribapena

PDCA zikloa planifikatzea, egitea, egiaztatzea eta egokitzea da, modu sistematikoan:

- Plangintza egitea, erabakitzea zer eta nola egin behar dugun bezeroa pozik uzteko.
- Egitea, plangintzari jarraitzea, elkarren artean harremana duten eta emaitza jakin bat helburu duten jarduerak (prozesuak) egitea. • Jarduera nola joan den eta zer emaitza izan dituen egiaztatzea, egitateen eta datuen bidez.
- Egokitzea, ondorioak ateratzea eta hurrengo plangintza egiteko erabiltzea, akatsak zuzentzeko, baliabideak hobeto erabiltzeko eta emaitza hobekuntza izateko.

Zikloaren ingelesezko izena osatzen duten lau faseen izenen sigletatik datorren izena PDCA zikloari: Plan-Do-Check-Act. Walter A. Shewhart estatubatuar ingeniari eta estadistikariak asmatu zuen hobekuntza-ziklo kontzeptua, baina Deming ziklo ere esaten diogu, William Edwards Demingen omenez. Unibertsitateko irakasle estatubatuarra izan zen Deming, eta Japoniaren garapenean eta hazkundean jardun zuen Bigarren Mundu Gerraren ostean.

6 . PROIEKTUAREN EBALUAZIOA







Proiektua ebaluatzeko garaian, aurretik zehaztutako helburuei erreparatuko zai, horien betetze maila adieraziz modu esanguratsu batean (adibidez: bete da/erdizka bete da/ez da bete).

Ondoren proiektuaren ebaluaziotik eratortzen diren hobetzeko proposamenak bilduko dira, hurrengo proiektua osatzeko.

Ebaluazioa egiteko parametro hauek hartuko dira kontuan:

- **Noiz** (urtean behin, bi urtetik behin.....)
- **Nola** (Selfie erabiliz, klaustroan, gogoeta)
- **Nork** (Zuzendaritzak, IKT batzordeak, klaustroak)
- **Helburuak**
- **Betetze maila** (adibidez bete da/erdizka bete da/ez da bete)
- **Hobetzeko proposamenak.**

Proiektuaren ebaluazio orokor horretaz gain, urtero ikasturte amaierako memorian islatuko dugu aurreikusi diren ekintzen balorazioa. Horrek, ikastetxearen proiektu digitala berrikusteko eta doitzeko bidea emango digu.

					
DATUAK	ANALISIA	HELBURUAK	EKINTZAK	DENBORALIZAZIOA	EBALUAZIOA

6 . ATALEKO LANEN KONTROL ZERRENDA

1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		

Proiektuen adibideak

- [Kataluniako adibidea \(LH\)](#)
- [Kataluniako adibidea \(DBH\)](#)
- [Botikazar BHI ariketa praktikoa \(DBH\) - \(Baimena eskatu behar da \)](#)
- [Botikazar BHI Ekintza plana- ariketa Praktikoa \(BDH\) Baimena eskatu behar da.](#)

1. ERANSKINA : BALIZKO EKINTZEN ORIENTAZIOA

AZPIEGITURA TEKNOLOGIKOA

Elementu hau azpiegiturek praktikak berrizteko eta ikasteko espazioen (fisikoak eta birtualak) mugak zabaltzeko funtsezko eginkizunari buruzkoa da. Erakundeak izan behar duen prozesuak modernizatzearen aldeko ikuspegi hori ikasketa-emaitzak hobetzera bideratuta egongo litzateke. Garapen guzti horri eusteko zerbitzu digitalen sare nagusi fidagarri, seguru eta eskalagarri bat egon beharko litzateke.

- Ikastetxeak teknologien **erabilera onargarrirako politika** bat du.
- Ikastetxeak **gela digitalizatuak** ditu.
- Beharrezko **baliabide teknologikoen eskuragarritasuna eta irisgarritasuna** bermatzen da, irakasle eta ikasleentzat.
- Ikasleek **ordenagailu eta/edo gailu mugikorak** dituzte, **banaka sartzeko konfigurazio espezifikoekin**.

- Ikastetxeak badu **biltegi bat**, erabiltzen dituen baliabide didaktiko eta dokumentuekin guztiekin. Biltegia irakasle eta ikasleentzat eskuragarri dago. Biltegiako material horiek mailaka eta arloka daude, ondo antolaturik. **Unitate didaktikoak** garatuta ditu IIB baten barruan.
- Ikasle eta irakasleek **gela birtualak** erabiltzen dituzte.

- Ikastetxeak **plan bat** du, dispositiboek dituzten arazo teknikoen konpontzeko.
- Ikastetxeak **zerrenda bat** du irakasleek eta ikasleek erabiltzen dituzten dispositiboekin (tabletak, eramangarriak, bestelako material didaktikoak...) **Inbentario bat**.
- Ikastetxeak **arrakala digitala arintzeko** neurriak hartzen ditu (laguntza ekonomikoak, maileguan utziko diren gailuak...)
- Ikastetxeak hezkuntza-jarduera sekuentziatuak garatzen ditu zibersegurtasunaren inguruan.

- Ikastetxeak informazio digitalaren, **jabetza intelektualaren eskubideen eta erabilera-lizentzien erabilerari lotutako printzipio legal** eta etikoak aplikatzeari dagokionez hainbat akordio ditu, eta hezkuntza-komunitatearekin partekatzen ditu.

- **Jasangarritasun-plan** bat dago, gailu zaharkituak modu seguruan kentzeko, ingurumena errespetatuz.
- **Datu akademiko edo pribatuak** modu seguruan tratatzeko eta **babesteko protokoloa** dago, datuak babesteko legean oinarritua.

LIDERGOA ETA GORBENANTZA

Ikastetxearen konpetentzia digitala sustatzeko zuzendaritza-eredu bat ezarri behar da. Ikastetxeko eragile guztien erantzukizuna sustatu egin behar da, ulermenetik eta konpromiso partekatutik abiatuta, zuzendaritza taldearen lidergoaren ideiarekin bat eginez. Teknologia ikaskuntza prozesuan sustatzea erakunde batean ez da prozesu sinplea, eta ezin da inprobisatu; beraz, hausnarketa, plangintza eta norabide egokiak hautatzea funtsezkoak dira erronkari aurre egiteko.

- **Ikastetxearen Proiektu Digitala** bat dator beste dokumentu instituzionalekin (Hezkuntza-proiektua, AJA, prestakuntza-plana, programazio didaktikoak...).
- **Ikastetxearen Proiektu Digitalean** labur eta argi aipatu behar dira honako kontu hauek: Interneten erabilera, teknologiaren erabilerak osasunean izan ditzakeen ondorioak, Interneten nabigatzerakoan segurtasuna, softwarearen erabilera zuzena, eta abar. Zentroko politika teknologikoak zehaztu behar dira hezkuntza-komunitate osoarekin partekatu behar dira.
- **Ikastetxearen Proiektu Digitalean** espazio eta hornikuntza teknologikoen antolakuntzaren aurreikuspena dago: nola erabiliko diren espazioak, nola berriztuko diren gailuak...
- **Ikastetxearen Proiektu Digitalean** aurreikusten da zer gailu eta aplikazio erabiliko diren irakaskuntzan, mailaka, etapaka edo arloka antolaturik.
- * Teknologia erabiltzeko plan egoki bat ezartzeko **behar diren giza baliabideak argi eta garbi identifikatuta eta jasota daude** erakundeko langile-premietan.
- Ikastetxeak **IKT batzorde** bat du Proiektu Digitalaren garapena koordinatu eta dinamizatzeko, eta irakasleen prestakuntza-plana bideratzeko . Bertan, zuzendaritzaren ordezkari bat dago.
- **Laguntza proiektu** bat sortu da, **hezkuntza-laguntza** behar duten ikasleentzat.
- Ikastetxeak proiektu digitala **ebaluatzen** du **sistematikoki** eta **hobekuntza** bideratzen du.
- Ikastetxean **Prestakuntza Plan** bat dago. Prestakuntza Plan hori Ikastetxeko Urteko Planaren baitan txertatuta dago. Ikastetxeko Urteko Planaren 'Hobekuntza Plana', 'IKT Plana', 'Hizkuntza Plana' horiekin guztiekin batera ezinbestekoa da Prestakuntza Plan bat ere egotea. Prestakuntza Planaren xedea **irakaslerian gaitasun digitala** garatzea da. IKT koordinatzaileak eta **IKT batzordeak** prestakuntza dinamizatu eta koordinatuko du, helburu nagusiak eta lehentasunak hautatuko ditu.
- Teknologia digitalak **ikas-egoera errealetan** eta testuinguruan kokatuak erabiltzen dira.

IRAKASKUNTZA ETA IKASKUNTZA

Erakundeak dinamikak eta mekanismoak antolatu behar ditu, sareko edukiak, ahal dela irekiak, sortzeko eta erabiltzeko, eduki horiek bistartzeko espazioak sortzeko, erabilera sustatzeko ekintzak egiteko eta ikastetxe barruan eta kanpoan partekatzen. Eskolan garatutako produktuei balioa ematea da helburua, tresna eta gaitasun teknologiko berriak erabiltzen dituzten analogikoei (adibidez, muralei) zein digitalei.

Barruan ekoizten dugunaz gain, garrantzitsua da beste batzuek partekatu dituzten baliabideen erabilera sustatea: ideia on bat izan liteke edukiak trukatzeko programa instituzional batean sartzea, gordailu publiko handiago bat sortzen lagunduko duena, edo bere gordailua sortuko duena, neurri horiek lagungarri izan baitaitezke eduki digitalen eta, ahal dela, hezkuntza-baliabide irekien erabilera sustatzeko.

- Ikaskuntza Ingurune Birtualak ikas egoerak garatuak dituzte.
- **Irakasleek programazioen jarraipena egiten dute koaderno digitalaren bidez.**
- **Programazioetan gaitasun digitalak aipatzen dira** eta baliabide digitalak zehazten dira.
- **Konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak zehazten dira**, indarrean dagoen hezkuntza-markoan oinarrituta.
- **Arloek eta sailek ikastetxeak zehaztutako baliabide digitalak erabiltzen dituzte.**
- Ikasleek **REA motako edukiak** ekoizten dituzte, ikastetxeak zehaztutako baliabideen eta gaitasunen arabera.
- Ikasleek eta irakasleek, **gordailu komun partekatuak** erabiltzen dituzte. Bere ekoizpenak katalogatzeko.
- Ikastetxeak **hezkuntza-jarduera** sekuentziatuak garatzen dituzte gai hauekin lotuta: **segurtasuna, teknologia digitalak erabiltzearen arriskuak, portaera arduratsua...**

GARAPEN PROFESIONALA

Erakundeak digitalki konpetentea izan dadin bertako kideak konpetenteak izan behar dira, beraz, ahal den neurrian norbanakoaren garapen profesionala sustatu egin behar da.

Teknologia digitalak aukera handiak ireki ditu irakasleen garapen profesionalerako eta, nola ez, erakundearen garapen digitalerako. Horretarako irakasleriak barneko hausnarketa eginda, **Norberaren Ikas Alorra (PLE- [Personal Learning Environment](#))** garatzea gomendagarria da.

Maila indibidualen ezagutzak erakundearen mailara igaro behar dira. Horretarako, erakunde batek ikasteko maiz erabiltzen dituen informazio-iturrien, tresnen, jardueren, mekanismo kognitiboen eta pertsonen sareen multzoa

partekatu beharko zituen, horretarako, **Erakundearen Ikas Alorra garapena (OLE-Organization Learning Environment)** tresna egokia izan daiteke.

- Erakunde gisa, funtsezko hiru alderdi daude, eta horietan eragin daiteke kideen PLEak sustatzeko:
 - a. Gure erakundea osatzen duten pertsonen **PLEa** ezagutu, aberastu eta benetan aprobetxatzearen garrantziaz jabetzea.
 - b. Ikastetxeko kideek beren **PLEan** sar ditzaketen ikaskuntza-aukerak eskaintzea, hau da, erakundean eta erakundetik kanpo ziurtatuta eta baloratuta egoteaz gain, **OLEko** parte izatera pasatzea esperientzia isolatuak bakarrik ez izatea.
 - c. **Ikastetxeko baliabideei etekina ateratzeko aukerak erraztea**, bertako kideen PLEa mantendu eta aberasteko, eskura dauden baliabideak (liburutegia, WiFi sarea, sareko biltegiatzea, espazio digitalak, koordinazio tarte eta guneak...) eta zentroak modu zentralizatuan eskura edo ireki ditzakeen beste batzuk (tresnetako hezkuntza-kontuak, espazioetarako harpidetza instituzionalak, etab.) erabil eta balia daitezen saiatuz.

- Erakundearen (ikastetxeko) Ikas Alorra, **OLEa, hobetzea**.
 - d. Erakundea definitzen eta nolakoa izan nahi duen zehazten duten oinarritzko gaiei buruz **kide guztiek duten ikuspegia bateratzea**
 - e. Epe labur, ertain eta luzerako antolaketarako **ikaskuntza-xedeak finkatzea** (adibidez, kideen PLEak hobeto ezagutzea) eta, hori oinarri hartuta, informazio-fluxua, komunikazio-fluxua eta horiekin erlazionatzeko modua egituratu behar dira
 - f. Aukera batzuk:
 - i. Erakunde barruko eta kanpoko informazio-iturri garrantzitsuen **mapaketa** egitea.
 - ii. **"IKT Batzordeak edota azpitaldeak"** sortzea, eduki garrantzitsua "sendatzen" edo erakundearentzat interesgarriak izan daitezkeen "baliabideak edo pertsonak" aurkitzen laguntzeko, eta haien lana barne-komunikazioko moduren batean zabaltzeko.
 - iii. **Ikasteko espazioak birsortzea** gure ohiko eskola-dinamiketan: iraupen laburreko topaketak, esperientzia profesionalak partekatzeko mintegiak, kanpoko adituekin tailerrak edo gure erakundean eragina izan dezaketen prestakuntza-programak izan daitezke.
 - iv. Behar diren **giza baliabideak** (irakaskuntzakoak) lortzea, inplikaturako bakoitzak bere PLE-a hobetzeko eta ikaskuntzaren inguruneko **lan-ordutegia**.

- Ikastetxeak **konpetentzia digitalaren arloko prestakuntza planifikatzen** du, irakasleen beharren eta ikastetxearen antolaketa-beharren arabera.
- Ikastetxeak **prestakuntza-planak garatzen ditu**, irakaskuntza-prozesuetan teknologia digitalak erabiltzeko metodologia-ereduak eta estrategiak garatzeko.
- Ikastetxeak **hezkuntza-baliabide eskuragarrien** erabilera eta

ezagutza errazten ditu, **Ikaskuntzako Diseinu Unibertsalaren kanonen arabera (DUA-IDU).**

- Ikastetxeak erreferentziazko konpetentzia digitalaren edota irakaskuntzaren arloko **batzorde bat du**, besteak beste, prestakuntza dinamizatzen, aholkatzen eta koordinatzen duena.
- Ikastetxeak **Harrera Plan Digital bat** du sartu **berri diren irakasleentzat**.
- Arlo eta sail guztietako **irakasleek eta irakasle ez diren langileek parte hartzeko aukera dute eskaintako prestakuntza-jardueretan**.
- Ikastetxeak **irakasleen gaitasun digitalari buruzko hausnarketa eta autoebaluazioa** sustatzen du baita gaitasun digitalaren portfolioaren erabilera ere. Ikastetxean **antolaketa-estrategia koordinatuak** daude, ikastetxearen beraren instalazioen barruan eta kanpoan egiten diren prestakuntza-ekintzen hedapena dinamizatze eta motibatzeke.
- Ikastetxeak **ezagutza trukatzeko jardueretan edo ekitaldiak antolatzen ditu**, praktika onak partekatzeke edota irakaskuntzaren berrikuntza sustatzeko.

EBALUAZIOA

Atal hau ikaskuntza-teknologiek ebaluazio eredu integratu baten garapenean duten zereginari dagokio. Eredu horrek ikasleen esperientziei eta lorpenei buruzko informazio esanguratsua eta puntuala eskaintzen du. Atal honetan ebaluazio eredu tradizional batetik bestelako praktika errepertorio zabalago batera mugitzen joateko neurriak jasotzen dira. Ebaluazio praktika horiek ikasleengan zentratuko dira, pertsonalizatuak, integratuak eta esanguratsuak izango dira, eta kontuan hartuko dituzte testuinguru formal eta ez-formaletan garatutako ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak.

- Ikastetxeak **ebaluazio-tresna askotarikoak** erabiltzea sustatzen du, ezagutzez gain, trebetasunak, gaitasunak eta jarrerak ere ebaluatzen dituztenak.
- Teknologiaren bidez ikasleei eta irakasleei **berehalako itzulerako informazioa** eman diezaieketen metodologiak, teknikak eta tresnak erabiltzea sustatzen du (feedback).
- **Programazioetan** konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak agertzen dira.
- **Teknologia digitalak integratzen dituzten ebaluazio-formatu digitalak** sustatzen dira (errubrikak, ikaskuntza-helburuak, ikaskuntza-egunkariak, etab.), ebaluazio-mota askotarikoen erabilera sustatuz, hala nola ebaluazio laburtua, autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa, besteak beste.

- Berdinen arteko mentorizazio-programa bat dago, **gaitasun digitalaren garapena** sustatzeko.
- **Ikaskuntza-prozesuari** (portfolioa) buruzko gogoeta eta dokumentazioa errazten duten ikaskuntza-egunkariak erabiltzea sustatzen da.
- Ikastetxeak balioa ematen die teknologia digitalen erabilerari dagokionez **ikasleek dituzten trebetasunei**. Ikastetxeak **ziurtagiri eta kredentzial digital irekiak** onartzen ditu, ikasleek gaitasun jakin batzuk eskuratzeko proba gisa.
- Ikastetxeak teknologia digitalak aplikatzen ditu **kudeaketa akademikoko prozedura** nagusietan, besteak beste: nota-buletinak, bertaratze-kontrola, ebaluazioa, curriculum-egokitzapenak, orientazio-zerbitzua, tutoretzen kudeaketa, liburutegien kudeaketa, eskolaz kanpoko jardueren kudeaketa.
- **Ikaskuntzaren** analitikak izaera estrategikoa du, eta hori bideratzeko ikastetxeak **praktika-kode** bat ezarri du. ikaskuntza prozesuak, kalitatearen kudeaketa eta curriculum/programen diseinua analitika horretan oinarritzen dira.
- Erakundeak **ikaskuntza-analisiak** erabiltzen ditu banakako eta taldeko ikaskuntzaren emaitzak eta antolaketa-errendimendua optimizatzeko.

EDUKIAK ETA CURRICULUMA

Digitalki konpetentea duen erakunde bat gai da eduki digital irekiak sortzeko eta erabilera ahalbidetuko duten dinamikak eta mekanismoak ezarriko ditu.

Beraz, gai hauei buruz hausnartu behar du:

- Irakasleek material didaktiko digitalak garatzen eta/edo egokitzen dituzte.

Irakasleek aniztasunarekiko arreta eta sortutako material digital guztien irisgarritasunari buruzko alderdiak hartzen dituzte kontuan.

- Ikastetxean erabiltzen diren baliabide didaktiko komertzialez gain, irakasleek eta ikasleek **Hezkuntza Baliabide Irekiak (HBI-REA)** erabiltzen, berrerabiltzen eta sortzen dituzte.
- Hezkuntza baliabideei buruzko **politikak eta prozedurak** ezarrita ditu ikastetxeak.
- **Jabetza intelektuala eta egile eskubideak** errespetatzen dira.
- Sortzen edota berrerabiltzen diren **baliabideei lizentzia** aplikatzen zaie
- Ikasle eta irakasleek gordailu komun partekatuak erabiltzen dituzte.

- **Baliabide biltegiak** modu zabalean eta eraginkorrean erabiltzen dira.
- Arlo edota ikasgaietan oinarritutako irakaskuntza berrantolatu egiten da, **diziplina-arteko eredu integratuagoak** implementatze aldera. Eduki espezifikoaren sortzaile eta kontsumitzaile izatera animatzen eta laguntzen ditu irakasle eta ikasleak.
- **Programazioetan kompetentzia digitala** aipatzen da:
 - Jardueren baliabide digitalak
 - Webguneak
 - Plataformak
 - Kompetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak sartzen dira
 - Ikasleek teknologia digitalak erabiltzea dakarten jardueretan, sormen eta lankidetzak alderdiak sartzen dira.

LANKIDETZA ETA NETWORKING

Gaitasun digitalak erakundearen barruan ezagutza komuna eraikitzea sustatzen du, eta aldi berean, baita kanpoko beste eragile batzuek hezkuntza-erakundearen eskumenari egin diezazkioketen ekarpenak irekitzea ere. Sareko lanak, baliabideak bateratzeak eta lankidetzak eskola-erakundeentzat duten garrantzia baloratu behar dugu.

- Zentroak klaustroan proiektu berritzaileen ezarpena dinamizatzeko eta hedatzeko ardura duen figura bat du (koordinatzailea, batzorde bat...) .
- Ikastetxeak harrera plan bat du irakasle sartu berrientzat, kompetentzia digitala hobetzea eta teknologia digitalak erabiltzea sustatzeko. Harrerari, tutoretzari eta orientazioari buruzko dokumentazioa (hala badagokio) eskuragarri dute ikasleek, irakasleek eta familiek, Internetetik eskura daitekeen web-aplikazio baten bidez.
- Irakasleak hezkuntza-sare, -atari eta -komunitate eta/edo profesionaletan sartzen dira eta/edo parte hartzen dute.
- Ikastetxeak irakaskuntza-berrikuntza bultzatzen duten ezagutzak trukatzeko jarduerak eta ekitaldiak antolatzen ditu eta/edo horietan parte hartzen du
- Ikastetxearen urteko planean eta/edo prestakuntza-planean berrikuntza metodologikora bideratutako ekintzak aurreikusten dira, IKTen erabilerak lagunduta.
- Ikastetxeak komunikazio-estrategia esplizitua landu eta garatzen du. Azpiegitura teknologikoak, Interneteko edo intraneteko zerbitzuak eta hezkuntza-komunitatearen arteko komunikaziorako eta interakziorako antolaketa du (besteak beste, mezu elektronikoak, mahaigainak, gela birtualak, sare sozialak).

- Hezkuntza- eta administrazio-zerbitzuen erabiltzaileekin komunikazio eta interakzio pertsonalizatua sustatzeko teknologia integratuak ditu.
- Ikastetxeak hezkuntza-komunitatearekin eta beste erakunde batzuekin duen kanpo-komunikazioa hainbat web-aplikazioen bidez egiten da, bi norabideko komunikazioa (iruzkin, erreklamazio, iradokizun eta erabiltzaileen ekarpenak ahalbidetzen dira), agenda digitala eta sare sozialak.
- Teknologiak modu planifikatu, egituratu eta sistematikoan erabiltzen dira, ingurune pertsonaletara zuzenduta (gailu mugikorrek eta etxeakoak) eta hezkuntza-interakziora bideratuta (besteak beste: aurrez aurrekoa, aurrez aurrekoa ez dena, etengabea).
- Tutoretzari eta orientazioari laguntzeko eduki eta jarduera digitalek erreferentziazko lekua dute Interneten, eta ikasleak eta familiak bertara sartzen dira.
- Ikastetxeak beste erakunde batzuekin (beste ikastetxe, erakunde edo enpresa batzuekin) parte hartzen du berrikuntza-proiektuetan.
- Ikastetxeak familien kompetentzia digitala garatzeko prestakuntza-ekintzak egiten ditu eta Internetarako sarbidea duten instalazioak eta baliabideak eta bulegotika-tresnak jartzen ditu ikasleen eta familien eskura.
- Ikasleen ikaskuntza errealitatearekin lotura egiteko lankidetzari-ildo egonkorrek ezarri dira inguruko erakunde publiko edo pribatuekin: museoak, elkarteak, fundazioak, GKEak...

2. ERANSKINA: IPDA IDAZTEKO EREDUA


AURKIBIDEA

OHARRA: Dokumentu honetan agertzen den eskema orientabidea da. Txantilo bezala erabili daiteke plangintza Word formatu honetan egiteko edo beste edozein plataformetan argitaratzeko (web orri, sites, beste dokumentu mota bat etab...).

SARRERA


Ikastetxearen testuingurua

(Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta dituzten baliabide teknologikoak, ..., ikastetxearen ikuspegia eta baloreak.)




Azpiegiturak

(Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...)



Proiektuaren justifikazioa

(Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik hartzen den parte)




Elaborazio prozesua eta lan-taldea

(Lehentasunak zehaztu. Planifikazio maila zehaztu. Nor izango da eragilea)



Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari (eta Urteko Planari) egiten dion ekarpena.


(Ikastetxeko proiektu digitala, Ikastetxeko hezkuntza proiektuari egiten dion ekarpena)



IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa

(Selfie edota beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa)



AMIA analisia

(Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak)

AMI A	Alde positiboak	Alde negatiboak
Ba rr uk ko fa kt	<i>Indarguneak</i>	<i>Ahultasunak</i>

or ea k		
Ka np o fa kt or ea k	Aukerak	Mehatxuak

Autoebaluazioaren ondorioak

(Hausnarketa eta AMIA tresnatik ateratako ondorioak)

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko
Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko
Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko
Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

HELBURUAK

Proiektuaren helburuak

(Hausnarketaren ondorioz. Helburu zehatzak, neurgarriak, eskuragarriak, errealistak eta denboran zehaztuak)

Helburuak	Adierazleak	Lortzeko epea
1. Helburua		
2. Helburua		

1 *urdina*: antzemandako ekintza baina definitu gabea.

2 *gorria*: definitutako ekintza, baina hasi gabea

3 *naranja*: garatzen ari den ekintza

4 *berdea*: lortutako ekintza

PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

(IPD noiz, nola, nork eta zer hobekuntza proposamen zehaztu behar da. Proiektuaren epemuga amaitzen denean horrelako taula erabiliko dugu.)

PROIEKTUAREN EBALUAZIOA						
Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila (bete da/erdizka /ez da bete)		Hobetzeko proposamenak